

1995eko Kode Penal berriaren balorazio orokorra¹

LANDA, Jon

Zuzenbide Penaleko irakaslea, EHU
Zuzenbide Fakultatea
Manuel de Lardizabal, 2
20009 Donostia

BIBLID [1137-1951 (1996), 0; 75-89]

1. Sarrera 2. Kode Penal berriaren balorazio orokorra
2.1. Kode Penal berriaren aurrekin hurbilak 2.2.
Kode Penal berriaren balorazio kritiko-orokorra: Zati
Berezia 2.3. Zati orokorraren berrikuntzarik garrantzi-
tsuenak 3. Konklusioa.

1. Sarrera

Kode Penal berria 1995eko azaroaren 8an
Diputatuen Kongresuan onartu zen, 10/1995,
azaroaren 23ko Lege Organikoaren bitartez (BOE
281, azaroaren 24koa) hain zuzen ere.

Kode Penalari buruzko lege organikoaren
7. azken xedapenaren arabera, lege penal berri
hau, BOEn azaldu eta 6 hilabeteren buruan,
indarrean sartu behar zen: hots, 1996eko
maiatzaren 24an. Halere, egun bat beranduago
indarrean sartu zen: maiatzaren 25ean,
larunbatean, horretarako arrazoi argirik egon
barik. Beraz, dagoeneko Kode Penal berriarekin
hilabete batzuk daramatzagunez gero, eta Kode
berri baten beharrari buruzko polemika politikoa
baretu dela kontutan harturik, gure ustez, egoera
juridiko-penal berriari buruzko balorazio orokor
lasaia eta zehatzagoa egiteko garaia heldu da.

Kode Penal berriak zehatz-mehatz zein
aldaketa ekarri duen argitzea ez da honelako lan
baten testuinguruan aurrera eraman daitekeen
helburua. Gainera, esandakoa hobeto ulertuko da,
baldin eta kontutan hartzen bada, asko eta asko
direla Kode Penal berriaren zeharo berriak suertatu
diren alderdiak: hauen berri eman ahal izateko

liburu oso bat beharko genuke. Hori dela kausa,
lan honen bitartez balorazio orokorrari ekingo
diogu besterik gabe.

Esandako helburua lortu ahal izateko
hurrengo eskema hau jorratuko dugu.

Lehenik eta behin, Kode Penal berriaren
aurrekin hurbilak aztergai izango ditugu: honek,
Kode Penala sortu zen giro politikoaren berri
emango digu, gero zenbait arazo zein kritika
ulertzeko balioko diguna.

Bigarrenik, zati bereziaren balorazio
orokorrari ekingo diogu, baina lehenengo
momentutik azpimarratu behar da, zati berezian
irudi orokorra gureganatzeko are zailtasun
gehiago baditugula, zati orokorrean baino askoz
aldaketa gehiago, zeharo berriak batzuetan,
baitaude. Horrexegatik, zati bereziaren azterketa
murrizteko, gaiak aukeratzeko hurrengo bi
irizpideak kontutan hartu ditugu: bat, batez ere
azken hilabeteotan Doktrinarik onenak
argitaratutako idaztien burutazioena; eta bi, gaiak
iritzi publikoan oihartzun handia izatearena.

Zati bereziaren azterketa eta balorazioa,
zati orokorrarenak baino lehenago egitea
logikaren aurka doala ematen badu ere,
horretarako arrazoiak badaude. Legegileak
berrikuntza politiko-kriminalik haundienak zati
bereziaren testuinguan egin ditu: Kode Penal
berria benetan zati bereziari esker dugu berria.
Zati berezian, orain arte zegoen politika kriminala
zeharo aldatu da, zuzenbide penal "modernoen"
eremu berrietan lege-arauketa zabala onartuz.
Horregatik, bakar-bakarrik politika kriminal berria
ezagutu eta gero, zati orokorraren aldaketa

1. Lan hau, Iruñeko XXIV. udako ikastaroen testuinguruan, 1996ko uztailaren 26an emandako saio baten laburpena besterik ez da. Iruñeko saioan bezala, hemen ere dibulgazio-helburua nagusi izango da, beraz ez da zuzenbide penalen jakintza arloan inongo aurrerapenik eman nahi, baizik eta dagoeneko zientzia penalean kode penal berriari buruz zabaltzen ari den iritzia jaso eta sistematikoki legelariengana helaraztea. Eskerrik beroenak Iruñeko saio horretan parte hartutako guztiei, egindako iruzkin, kritika eta galderengatik, lan honetan kontutan hartu ditudanak.